

EDITORIALA



Irudia - Kale-interbentzio artistikoa Urgull mendi magalean.
Iturria - Ideia Beltzen Brigada

Izagirre eta Elorzaren arteko besarkadatik lau urte luze pasa diren honetan, hirugarren bati egokitu zaio Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren urtea kudeatzea. «Hiriaren posizionamendu berri bat» bilatzen duen kudeaketa, Goia alkatearen hitzetan, «iraganeko gatazka eta biolentziari lotutako irudi batetik beste esperientzia batzuei lotutako irudi batera pasatzea, kulturaren eskutik bereziki».

Zergatik esaten dioten Kultura, Posizionamendua esan nahi dutenean, ez dago oso argi. 2016. urteak ekarriko duena errazago ulertzen laguntzen baitute Posizionamendua eta Lehiakortasuna bezalako hitzek Kultura adierazle hutsak baino, eta hala frogatzen dute proiektuaren aldekoen argudioek bezala kontrakoek.

Aldekoek, hiri-garapen berritzaile eta oparo baten berme moduan ulertzen dute Kultura, hirien arteko lehia horretan posizionamendu egokia bermatzen duen balio erantsia.

Kritikoez, ordea, kapitala aipatzen dute proiektuaren leitmotiv gisa; Kultura, aldiz, justifikazio bat, hirien merkatuan lehiatzeko aitzakia gisa balio duena.

Kultura, beraz, dena da eta ez da deus. Izan ere, gizarteko botere-erlazioak dira kultura, sistema politiko-ekonomikoa, demokrazia eta demokraziarik eza. Basque Culinary Center eta Burger King, musika eta futbola, turismoa, hizkuntza, espekulazioa, zabor-bilketa, gaztetxeak, Disneylandia. Funtsean, Kultura gizartearen asmakizun oro da eta aldi berean ez da ezer, esanahia erauzi zaion adierazle hutsa baino.

Edonola ere, ehunka eragilek prestatutako programa zabalaren olatu-talkak utzitako aparraren ostean egingo dugu atzera begirakoa, eta azken-azkenean, ikusiko dugu Kultura kontzeptuaren definizio hegemonikoa egungo koordenatuetatik mugitu ote den, apur bat bada ere.